



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 25a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko dirulaguntza handitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Familientzako Laguntza Integralari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehiaketara dei dezan Erriberagoiena, Erriberabarrena eta Iruña-Soriako hiriarteko garraiorako emakida berriak esleitzea. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. HHorren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoek tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua, eta halaber premiatzen da Nafarroako Gobernua eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premiatzen dira adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen ditu erakunde militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jarritako ekimenak. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua prematzen da autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua prematzen da laguntza handiagoa eman dezan nekazari gazteak kokatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean nafar gehieneri izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: "Foru Legea, 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Legea,
327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematen duena, Pablo Sarasate Fundazioaren funtzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren xede nagusia musika gizartean zabaltzea da. Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Pablo Sarasatek 1879an sortutako Santa Cecilia Orkestran du jatorria. Nafarroako Gobernuak eta Sociedad de Concier-tos Santa Cecilia elkarteak 1997an sortu zuten Pablo Sarasate Fundazioak kudeatzen du.

Nafarroako Gobernuak Pablo Sarasate Fundazioari azken urteotan egindako diru-ekarpena diru-laguntzak arautzen dituzten hitzarmenen bidez ezarri da, eta haren zenbatekoa kasuan kasuko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan "Pablo Sarasate Fundazioarekiko Hitzarmena.

Funtzionamendu gastuak" izeneko kontu-sail izendunean jasotzen da.

Kontu-sail horretako aurrekontu kreditua behar-raka joan da, nabarmen: 2008an jasotako 4.900.400 euroko kopurua 3.700.000 eurora jait-si zen 2012an. 2015ean Pablo Sarasate Fundazioari emandako diru-laguntza 3.650.000 eurokoa izan zen, eta kontu-sailean 72.200 euroko gerakina egon zen.

Pablo Sarasate Fundazioak 327.800 euro gehiagoko diru-laguntza behar du 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekoan izandako funtzionamendu eta jarduera gastuak ordaintzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 4. artikulua ezar-tzen duenez, foru lege bidez arautuko dira Nafa-rrako aurrekontu orokorrak, eta horien aldaketak ere bai, kreditu bereziak edo kreditu-gehikuntzak emateari buruzkoak badira.

Esandako guztiagatik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluan ezarritakoarekin bat, beharrezkoa da kreditu-gehikuntza bat eman dadin onestea, Pablo Sarasate Fundazioaren fun-tzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

Artikulu bakarra. Kreditu-gehikuntza ematea.

1. 327.800 euroko kreditu-gehikuntza ematea onesten da, Pablo Sarasate Fundazioaren fun-tzionamendu eta jarduera gastuak, 2014-2015 denboraldiko azken hiruhilekokoak, ordaintzeko diru-laguntza handitzeko.

2. Kreditu-gehikuntza horren zenbatekoa 2015era luzatutako 2012ko aurrekontuko "Pablo Sarasate Fundazioarekiko Hitzarmena. Fun-

tzionamendu gastuak” izeneko A20002 A2520 4309 335103 kontu-sailean aplikatuko da.

3. Aipatutako kreditu-gehikuntza 2015erako luzatutako 2012ko aurrekontuko kontu-sail hauetan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatuko da:

Kontu-sailaren kodea	Izena	Zenbatekoa
A20002 A2510 7609 334100	Kultur etxeak eta gizarte etxeak eraiki eta ekipatzea	253.000,00
A20000 A2000 2266 334102	Lehiaketak, topaketak eta bestelako ekitaldiak antolatzeko gastuak	24.800,00
A20003 A2310 2050 333100	Ondasun higigarrien errentamendua	50.000,00
GUZTIRA		327.800,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Familientzako Laguntza Integralari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Familientzako Laguntza Integralari buruzkoa. Proposamen hori 2015eko urriaren 9ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehiaketara dei dezan Erriberagoiena, Erriberabarrena eta Iruña-Soriako hiriarteko garraiorako emakida berriak esleitzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehiaketara dei dezan Erriberagoiena, Erriberabarrena eta Iruña-Soriako hiriarteko garraiorako emakida berriak esleitzea."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Gobernua premiatzen da lehiaketara atera ditzan, 2016ko lehen seihilekoa bukatu aitzin, Erriberagoieneko, Erriberabarreneko eta Iruñetik Soriarako hiriarteko garraio-emakida berriak.

2. Gobernua premiatzen da ahalegin berezia egin dezan, halako moduan non gainontzeko emakiden plangintza, parte-hartze publikoa, izapidetzea eta lehiaketa 2017an egin ahal izanen baitira."

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoen tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztu dezan urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoen tratamendu medikoa atxikitzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutakoa izanik, finantzaketa publikoa duenean."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Laguntza-sistema bat ezartzera, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona gaixoen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutako eta finantziario publikoari atxikitako tratamendu medikoari euts diezaioten.

2. Laguntza horien onuradun izan daitezten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Osasun-txartel Indibidualaren titular diren pertsona guztiak eta haien onuradunak, bai eta, otsailaren 25eko

8/2013 Foru Legearekin bat –zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsoneri–, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik osasun-prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsonak ere.

3. Laguntzen zenbatekoa izan dadin finantziario publikoa duten farmazia-tratamenduak, pro-

duktu dietetikoak eta efektuak eta osagarriak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek agindutako tratamendu medikoa-
ren ondorioz ordaindutakoa adinakoa”.

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua, eta halaber premiatzen da Nafarroako Gobernua eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodearen 143. artikulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua, eta halaber premiatzen da Nafarroako Gobernua eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Zigor Kodearen 143. arti-

kulua alda dezan, halako moduz non despenalizaturik geratuko baitira eutanasia eta suizidio lagundua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen foru lege bat presta eta gara dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du osotasunean bete dezan Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea; bereziki, 27. artikulua –osasun laguntzaren etika batzordeak–.

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premiatzen dira adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premiatzen dira adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta gainerako administrazio publikoak premia-tzen ditu:

1. Adieraz dezaten indarkeria matxistaren aurkako borroka estatu-auzia dela.

2. Adieraz dezaten Istanbuleko Hitzarmena garatu eta aplikatu behar dela, bai eta CEDAW konbentzioaren gomendioak ere; halaber, 14/2015 Foru Legearen aplikazioa ere sendotu behar da, emakumeen eta neskatilen aurkako indarkeria mota guztiak islatuta egon daitezten.

3. Adieraz dezaten gizarte osoak, eta bereziki bere erakundeek eta instituzioek, indarkeria matxistak prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromisoa hartu behar dutela, baita indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko eta ordaina emateko

ere, edozein dela ere haien egoera administrati-boa, eta arreta-prozesuetan biktimizazio multiple-an erori gabe. Izan ere, honako hau da funtsezko helburua: emakumeei laguntzea erreku-peratzeko, ahalduztzeko eta erabateko autonomia bilatzeko prozesuan.

4. Adieraz dezaten beharrezkoa dela komuni-kabideen inplikazioa tratamendu egokia eskain-tzeko emakumeen eta neskatilen aurkako indarke-ria guztien aurrean, haien tratamenduan sentsazionalismo morbosoa saihestuta, eta hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabilia.

5. Gure elkartasuna adieraz diezaiegun ema-kume erasotu edo/eta erailei, indarkeria sexista muturrekoenaren biktima diren aldetik, laguntza osoa eskaintzen diegu haiei eta haien familiei.

6. Herritar guztiak, eta oso modu berezian neska eta mutil gazteak, gonbida ditzagun konpro-miso pertsonal eta kolektiboak hartzera emaku-meen eta gizonen arteko berdintasunaren alde, bai eta azaroaren 25ean Emakumearen kontrako indarkeria ezabatzeke nazioarteko eguna dela-eta eginen diren ekitaldietan modu aktiboan parte har-tzera ere.”

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen ditu erakunde militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jarritako ekimenak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko azaroaren 19an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak irmoki arbuiatzen ditu erakunde militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arlo-an eragina izateko abian jarritako ekimenak.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak irmoki errefusa-tzen ditu instituzio militarrek eta segurtasun indarrek hezkuntza arloan eragina izateko abian jar-tzen dituzten ekimenak, balore militaristak ez baitatoz bat bakearen eta bizikidetzaren heziketa balioen lanketarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du segurtasun indarrek eta instituzio militarrek aurrerantzean halako beste ekimenik egin ez dezaten Nafarroako ikastetxeetan eta Nafarroako ikasleekin, eta hartara, Espainiako Gobernu eta Gobernu Delegazioa premiatzen ditu behar diren neurriak jar ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Nafarroako ikastetxeek eta Nafarroako ikasleekin halako beste ekimenik egin ez dela berma dezan, ikastetxeei zein Gobernu Delegazioari beharrezkoak diren instrukzioak emanez”

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2015eko azaroaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan eta autismorako terapiak finantza ditzan”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

1. Autismoaren diagnosirako eta esku-hartze terapeutiko goiztiarrerako plan bat presta dezan.

2. Autismoaren Nafarroako Elkarateak autismoa artatzeko egiten dituen terapiak finantza ditzan, Autismoaren Nafarroako Elkaratearekin hitzarmen bat eginez, edo terapia horiek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oso-osorik bere gain har ditzan”

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza handiagoa eman dezan nekazari gazteak kokatzeko.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Luis Casado Oliver jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza handiagoa eman dezan nekazari gazteak kokatzeko.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2015eko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean nafar gehienei izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Ana Beltrán Villalba andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du Nafarroako Gobernuaren lehendabiziko ehun egunen balantzean nafar gehienei izan ordez gutxiengo bati mesede egitearen interesa lehenetsi dela.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2015eko azaroaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko azaroaren 17ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

